

MERKATUAREN SEGMENTUA

Gure produktua, REMINDOOR pantaila adimenduna, egunerokoan antolaketa-beharrak dituzten hiru bezero-segmentu nagusiri zuzenduta dago.

8.1. Familia aktiboak (30–55 urte)

- Eguneroko erritmo bizi eta lanpetua dute: seme-alaben eskolako ordutegiak, kirol jarduerak, mediku-hitzorduek eta etxeko zereginak koordinatu behar dituzte.
- Maiz gertatzen dira ahaztuak —motxilak, giltzak, kirol-poltsak edo dokumentu garrantzitsuak— eta horregatik baloratzen dute ate ondoan begirada azkar batekin dena kontrolpean edukitzea.

8.2. Ikasleak eta gazteak (14–25 urte)

- Mugimendu handiko egunerokoa dute: ikasketak, lanak, azterketak, kirol jarduerak eta gailu teknologikoak eramatea.
- Antolaketa-ohituretan esperientzia oso gutxi dutenez, bisualki gogoraraztea lagungarria izan daiteke
- Goizetan presaka irteten dira etxetik, eta askotan ahazten dira erosketak, laneko dokumentuak edo eskolako lanak.
- Ez dute denbora asko irauten aplikazio erabiltzen, beraz REMINDOORren funtzionamendu oso sinplea duenez, egokia izan daiteke.

8.4. Bezero mota

Hiru bezero mota aurkitu ditzazkegu. Lehenengo familia aktiboak, hauek gauzak askotan ahazten dituztenak dira eta eguneroko errito bat daramatenak.

Beste alde batetik, ikasleak eta gazteak aurkitu ditzazkegu, gehienetan presaka bizi direnak eta gehien bat antolaketa bisual baten beharra dutenak.

Azkenik, lan egiten duten pertsonak daude, auek etxetik irteen baino lehen gogorazpen batzuk behar dituzte, eta beraien egutegiak eta zereginak antolatzeko laguntza behar dute.

8.5. Ingurune espezifikoa

REMINDOOR batez ere etxe eta pisuetarako diseinatuta dago. Ate nagusiaren ondoan jartzen den pantaila da. Oso erabilgarria da hiri-ingurunean, jendeak presaka ateratzen denean (lanera, ikastera edo bestelako jardueretara). Bereziki egokia da ikasle-pisuetarako eta familia etxeetarako. Gure helburua pertsona askoren ordutegiak eta eguneroko zereginak koordinatzea da. Pantaila mugikorraren aplikazioarekin konektatzen da.